

## **GASTEIZKO KALE-IZENDEGIAZ SINDIKO HERRITARREN DEFENDATZAILEAREN GALDERARI EUSKALTZAINDIAREN ERANTZUNA**

*Henrike Knörr,  
euskalzainburuordea eta  
Arabako ordezkaria.  
Gasteizen, 2004ko maiatzaren 21ean (\*)*

Sindikoko Herritarren Defendatzaileak hiri honetako kale eta plazen izendatze elebidunaz Euskaltzaindiari egin galdera deta eta, gaia xehekiro azterturik, egoki dirudi honako hau erantzuteak:

1. Udalak onartua duen kale-izendegi elebiduna Euskaltzaindiak Gasteizko Ordezkaritzan espresuki sorturiko Lan talde bati egotzi eginbizuna izan zen. Eginkizuna bukatu ondoren, proposamenak Akademiaren Onomastika Batzordean aurkeztu ziren, eta Batzordeak Udalera igorri zuen zerrenda elebiduna, erabilera-irizpideekin batera.
2. Zer esanik ez da, lan guzti hauek Legearen babesean burutu ziren, eta hain zuzen ere Autonomia Estatutuaren 6. Artikulua kontuan izanik, bai eta Euskararen Arauzkotzearen 10. Artikulua ere. Biek euskara ofizialkidetasun maila ematen diote hizkuntza honi.
3. Udalerri honen kasuan, ezaguna da euskara bazterturik eta administrazioetik kanpo mendeetan izanik, euskal izen gehienak galdu direla. Ezin uka daiteke, ordea, Gasteizko euskaldunek *Correría, Mercado del Ala* eta abarren ordainak erabiltzen zituztela. Gasteizen bilduriko Landuchioren hiztegian garbi ageri da *Zapatari kalea*. Izen hauetariko asko «asmatu» behar izan ziren, dokumentaziorik ezaz. Baina asmatze lan horretan hizkuntzaren eta gramatikaren zuzentasuna errespetatu zen zehazki, eskura zirelarik, bestalde, hurbileko adibideak.
4. Ezaguna da berebat euskarazko izen horietatik gehienak euskal testuetan erabiltzen direla normaltasun osoz. Jakina, ahozko hizkerari

---

(\*) Testu hau Euskaltzaindiaren Onomastika Batzordeak onetsia da.

dagokionez, astiroago sartzen dira pertsona elebidunengan, espero litekeenez.

5. Esan behar da halaber Euskaltzaindiak onduriko izendegian begirunea erakutsi zela izen batzuekin, zein itzuli gabe utzi baitiziren: *Santo Domingo*, *Castillo de Villamonte*, eta abar.
6. Xafletarakoan, Euskaltzaindiak gomendaturiko izen batzuk gaizki ezarri dira, besteak beste, Sindikoaren izkribuan aipatzen direnak: *Machete Plaza* o *Arquillos Ibilbidea*. Zorionez, badirudi huts hauek laster zuzenduko direla, hiritar batek egin protesta dela kausa, bereziki.
7. Puntu horri datxekola, bi hizkuntzen duintasunagatik, hobe da, guk uste, hizkuntza bakoitzaren formak ipintzea, bai generikoan (*plaza*, *kale*, e.a.), bai berezian (*Aihotz*, *Arkupeak*, e. a.). *Machete Plaza* edo *Arquillos Ibilbidea* bezalako formak ez dira onartzekoak, gure aburuz.
8. Hizkuntzen duintasunagatik beragatik, *Barrenkale* bezalako izen bat, Gasteizen aurkitzen dena, bai eta Euskal Herriko hiri, hiribildu eta herri batzuetan ere, adibidez, Bilbo, Gernika, Bergara, Durango eta Eibarren, ezin desitxura daiteke eta *Barrancal* bihur. Kasu honetan eta besteetan, herri-aginteez eta alor pribatuak (iragarkietan, xafletan, argitalpenetan eta abarretan) zaindu behar dute izenen zuzentasuna. Orobat esan daiteke behin eta berriz ikusten diren hutsei dagokiela, adibidez, *Ariznavarra*, *Judizmendi* eta *Mendizorroza*; forma zuzen bakarrak beste hauek dira: *Ariznabarra*, *Judimendi* eta *Mendizorrotza* (honetaz Euskaltzaindiaren Gasteizko Ordezkaritzak adierazpen labur bat atera du berriki). Begirune bera erakutsi da, bidebanar esanik, kanpoko hizkuntzetako izenetan: *Louis Heintz kalea* (ez *Luis*), adibidez, Alsaziako marianista ezaunaren arabera deitua.
9. Erdaraz ordain arrunta ez duten leku izenei dagokiela, uste dugu hiritarrek ez luketela ulertuko itzulpen bila ibiltzea, hala nola *Lago* (*Lakua* itzultzeko), *Casa rojita* (*Txagorritxu*), edo *Valle de los Caballos* (*Zaldiaran*). Gizarteak behar duen bakea kontuan izaki, bate-tik, eta hizkuntzen bizikidetasun onagatik, bestetik, ez litzateke inola ere gomendagarria izango urrats hori, zein Gasteizko historian egin baita, zalantzarik gabe. Adibidez, (*el Paseo de*) *La Senda* garbi dago aurreko *Zidorra* leku izenaren itzulpena dela.
10. Kontuz eta tentuz jokatu behar da hiri honetako elebitasunak dakartzan arazoetan. Behin erabaki dena agian birpentsatu beharra da, datu berriek edota azterketa berriek horretatarurik.

11. Azkenik, Euskaltzaindiak, kale-izendegiarekin batera, onarturiko erabilera-irizpideak irakurtzea aholkatzen dugu. Era horretara, gure Era-kundeak eginkizun honetan zuen eta duen asmoa hobeki ulertuko da, beti ere guztion den kultura ondarearen mesedetan. Irizpide hauen kopia bat bidaltzen dugu aldamenean, kale-izendegiaren zerrenda osoaz gain.

## RESPUESTA A LA CONSULTA ELEVADA POR EL SÍNDICO DEFENSOR VECINAL ACERCA DEL RÉGIMEN DE BILINGÜISMO EN EL CALLEJERO VITORIANO

*Henrike Knörr,  
Vicepresidente de la Real Academia  
de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia  
y Delegado en Álava.  
Vitoria/Gasteiz, 20 de mayo de 2004 (\*)*

Ante la consulta elevada por el Síndico Defensor Vecinal acerca de la rotulación bilingüe de calles y plazas de este municipio, y examinado el asunto con detención, parece oportuno decir lo siguiente:

1. El Callejero bilingüe aprobado por la Corporación fue tarea encargada por Euskaltzaindia a un Equipo de Trabajo creado *ad hoc* en su Delegación vitoriana. Una vez concluida esta labor, las propuestas se sometieron a la Comisión de Onomástica de la Academia, Comisión que remitió al Ayuntamiento el listado con los nombres en ambas lenguas, junto con los criterios de utilización.
2. No hace falta decirlo, los trabajos se llevaron a cabo al amparo de la Ley, y en particular del Art. 6 del Estatuto de Autonomía de 1979 y del Art. 10 de la Ley de Normalización del Uso del Euskera de 1982, que daban a la lengua vasca carácter de lengua cooficial.
3. En el caso del Municipio que nos ocupa, es evidente que, por la secular postración del euskera, y sobre todo a causa de su ausencia del ámbito de la administración, la mayor parte de los nombres vascos se han perdido, aunque es innegable que la población vascofona empleaba formas equivalentes a *Correría, Mercado del Ala*, etc. etc. En el Vocabulario de Landuchio (s. XVI), recogido en Vitoria, figura claramente *Zapatari kalea*. Muchos de estos nombres debieron ser «inventados», al carecerse de documentación. Pero la búsqueda de equivalentes se hizo siempre dentro del máximo rigor lingüístico y gramatical, teniendo a mano, además, ejemplos más o menos próximos.

---

(\*) Texto aprobado por la Comisión de Onomástica de Euskaltzaindia

4. Es conocido asimismo que la mayor parte de estos nombres eusquéricos circulan en textos vascos con total normalidad, aunque en el lenguaje hablado de las personas bilingües la introducción es más lenta, como era de esperar.
5. Hay que señalar que en el callejero elaborado por Euskaltzandia se actuó con un criterio respetuoso asimismo con algunos nombres que dejaron sin traducirse, como *Santo Domingo*, *Castillo de Villamonte*, etc.
6. Han de señalarse algunas anomalías en la plasmación de los nombres sancionados por Euskaltzaindia, como la mencionada en el escrito del Síndico, verbi gratia, *Machete Plaza* o *Arquillos Ibilbidea*. Por fortuna, tales errores parece que van a ser corregidos en breve, por la protesta de un vecino singularmente.
7. Acerca de este punto, creemos que por la dignidad de ambas lenguas es mejor el establecimiento de las formas correspondientes a cada idioma, tanto en el genérico (*plaza*, *calle*, etc.) como en el nombre propio (*Machete*, *Arquillos*, etc.). Formas híbridas como *Machete Plaza* o *Arquillos Ibilbidea* no se justifican, en nuestra opinión.
8. Por la misma dignidad de las lenguas, un nombre como *Barrenkale*, igualmente de la ciudad de Vitoria, como en varias ciudades, villas y pueblos de Vasconia, entre ellos Bilbao, Gernika, Bergara, Durango y Eibar, no puede desfigurarse en *Barrancal*. En éste y otros casos, las autoridades públicas y el sector privado (en anuncios, rótulos, publicaciones, etc.) deben velar por la corrección del nombre. Lo mismo se diga de errores reiterados como *Ariznavarra*, *Judizmendi* y *Mendizorroza*, en lugar de los únicos correctos *Ariznabarra*, *Judimendi* y *Mendizorrotza* (objeto de una reciente Nota emitida por la Delegación alavesa de Euskaltzaindia). El mismo respeto, por cierto, se ha puesto de manifiesto en el caso de nombres en otras lenguas, por ejemplo en la calle *Louis Heintz* (no *Luis*), llamada así por el conocido marianista alsaciano.
9. Por lo que toca a los topónimos eusquéricos cuyo equivalente castellano no es usual, creemos que la ciudadanía no comprendería la búsqueda de traducciones del tipo de *Lago* (por *Lakua*), *Casa rojita* (por *Txagorritxu*), o *Valle de los Caballos* (por *Zaldiaran*). Teniendo por norma la concordia social y la convivencia de ambas lenguas, en modo alguno sería aconsejable tal paso, que se ha dado en la historia vitoriana, sin lugar a dudas. Por ejemplo, (*el Paseo de*) *La Sen-da* resulta a todas luces una traducción del anterior *Zidorra*.
10. La realidad bilingüe de esta ciudad plantea unas cuestiones delicadas, que han de abordarse siempre con sumo cuidado. En ningún caso

ha de descartarse el repensar algunas decisiones si nuevos datos o nuevos análisis lo aconsejaran.

11. Finalmente, cabe remitir a los Criterios aprobados por Euskaltzaindia sobre el empleo de los nombres del callejero vitoriano, para hacerse una idea más exacta del propósito que guiaba y guía a nuestra Institución, siempre por el bien de un patrimonio cultural compartido. Adjuntamos una copia de esos Criterios, junto con el lista oficial completo del callejero.